


HEMEN DRAGOIAK DAUDE / AQUÍ HAY DRAGONES

2023.09.20—2024.01.07

ARTEA
B
I
A
N

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
SAN TELMO MUSEOA

MIKEL
OTXOTTEKO



Mikel Otxoteko artistaren erakusketarekin bere laugarren ediziora iristen da **ARTEA ABIAN** ekimena. Honen bitartez, Kutxa Fundazioak eta San Telmo Museoak laguntza eta babesa eskaini nahi diete, beren ibilbide profesionalaren lehen urteetan egonik, beren obraren aurkezpen monografiko bati heltzeko behar adinako esperientzia duten artistei. Horrela, arte plastikoen eta ikusmen-arteen testuinguruan nabari den premia bati erantzun bat ematen zaio, erakusketetarako guneak eta aukerak abian jarri.

“Hic sunt dracones (Hemen dragoiak daude) antzinako itsas kartografian erabiltzen zen esamoldea da. Honekin, ezezaguna den orok dituen arriskuez ohartarazten zituzten nabigatzaileak. Hala, mapetan, Ternua, ofizialki oraindik ere herensuge ezkatadun bat bezala agertzen zen.

Hala ere, ur hotz eta urrun haietan euskaldunek bakailaoa harrapatzen zuten eta sasoi baterako kokaleku txikiak ezartzen zituzten XVI. mendearen amaieratik; Saint-Pierre et Miquelon uharteetako kasu. Era berean, bakailao gazitua elikagai nagusia izan zen hurrengo mendeetan Karibeko azukre-kanabera plantazioetan aritzen ziren milaka langile esklaboentzat, bereziki Puerto Ricon.

Gaur egun Frantziako itsasoz bestaldeko lurraldea den St. Pierre portua, hainbat nazionalitatetako marinelek erabili zuten. 1971n, artean, euskaldunak eta galziarrak kontsultategi txiki batean artatzen zituzten. Bertan egiten zuen lan Margarita Olazabal erizain gazteak: nire amak. Gehiegizko arrantzaren ondorioz, harrapaketak bat-batean gutxitu egin ziren eta horrek Ternuako arrantza eremuak ixtea eragin zuen. Margarita 1975ean itzuli zen Donostiara, Super-8an grabatutako hainbat ordu berarekin zekartzala. Grabazio horietan, uharteko bizitza islatzen zuen; ingurumenarentzat, biztanleen bizimoduarentzat eta elikadura-subiranotasunarentzat itzulerarik gabeko une historikoa.

Erakusketa hau uharte hauetan kokatzen da berrogeita hamar urte geroago. Egun, biztanle horiek, nola biziraun bilatzen ari dira beren lurralde txikian isolatuta eta ia ahaztuta.”

Mikel Otxoteko

Ikus-entzunezko materiala, eskulturak, instalazioak, mapak eta dokumentazio historikoa biltzen dituen ikerketa artistiko honek St.Pierre et Miquelon erabakigarriak izan diren faktoreak aztertzen ditu.

Mikel Otxoteko Donostiako artista eta ikertzailea da. Nazioarteko aipamena jaso zuen *Audiovisual Arts and Neo-materialism* doktoresiarekin, Manuel DeLanda zinemagileak New Yorkeko Pratt Institute of Art & Design-en ikertzaile bisitari gisa egindako gonbidapenarekin. *Dance & Drill* edo *Algunos cabos sueltos* bezalako ikerketa proiektu artistikoak garatu ditu, proiektzioetan eta erakusketetan gauzatuz Toulouseko Musée d'Art Contemporain Les Abattoirs, Valentziako Centre del Carme Cultura Contemporánea edo Londresko The Rag Factory bezalako lekuetan. Bere azken film dokumentala, *Invierno* (2019), Bilboko Zinebi, Cinespaña eta Toulouse-ko zinemaldietan ikusi ahal izan da. *Hemen herensugeak daude* proiekturako ekoizpen artistikoko egonaldiak egin ditu Saint-Pierre et Miquelon eta Puerto Rico uharteetan, Itsasertzeko Ikasketen Diziplinarteko Zentroak eta Sea Grant Programak (biak Puerto Ricoko Unibertsitatekoak), eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta.

Mediante el programa **ARTEA ABIAN**, que llega a su cuarta edición con la participación de Mikel Otxoteko, Kutxa Fundazioa y San Telmo Museoa ofrecen apoyo y respaldo a artistas que, encontrándose en los primeros años de su trayectoria profesional, cuentan con la experiencia suficiente para afrontar una presentación monográfica de su obra. Con ello se da respuesta a una necesidad en el contexto de las artes plásticas y visuales, con la implementación de espacios y oportunidades de exposición.

“Hic sunt dracones (Aquí hay dragones) era la expresión usada en las antiguas cartografías marinas para alertar a los navegantes ante los muchos peligros que encierra lo desconocido. Así, la región subpolar de Terranova aparecía oficialmente en el mapa aún como un dragón escamado. Sin embargo, en esas aguas frías y remotas los vascos pescaban bacalao y establecían pequeños asentamientos estacionales desde finales del siglo XVI, como el de las islas Saint-Pierre et Miquelon. A su vez, el bacalao salado serviría en los siglos siguientes de sustento nutricional para los miles de trabajadores esclavos en las plantaciones de caña de azúcar del Caribe, particularmente Puerto Rico.

El puerto de St. Pierre, hoy territorio de ultramar francés, fue usado por marineros de distintas nacionalidades. Aún en 1971, vascos y gallegos podían ser atendidos en un pequeño dispensario médico donde trabajaba la joven enfermera Margarita Olazabal, mi madre. Sin embargo, la súbita disminución de las capturas debido a la sobrepesca llevaría al cierre de los bancos de Terranova. Margarita regresó a Donostia en 1975 con varias horas de grabaciones en Super-8 en las que retrataba la vida en la isla en un punto histórico de no retorno para el medioambiente, la forma de vida de sus habitantes y su soberanía alimentaria.

Esta exposición se sitúa en estas islas cincuenta años más tarde, cuando esos mismos habitantes buscan otros modos de subsistencia aislados y casi olvidados en su mínimo territorio insular.”

Mikel Otxoteko

Por medio de una investigación artística que comprende material audiovisual, esculturas, instalaciones, mapas y documentación histórica, la muestra ahonda en los factores que han sido decisivos para St. Pierre et Miquelon.

Mikel Otxoteko es un artista e investigador de Donostia. Recibió la mención internacional con su tesis doctoral *Audiovisual Arts and Neo-materialism* con invitación del cineasta Manuel DeLanda como investigador visitante en el Pratt Institute of Art & Design de Nueva York. Ha desarrollado proyectos artísticos de investigación como *Dance & Drill* o *Algunos cabos sueltos*, materializándose en proyecciones y exposiciones en lugares como el Musée d'Art Contemporain Les Abattoirs de Toulouse, el Centre del Carme Cultura Contemporánea de Valencia o The Rag Factory, Londres. Su última película documental, *Invierno* (2019) ha podido verse en festivales de proyección internacional como Cinespaña, Toulouse y Zinebi, Bilbao. Para su proyecto *Aquí hay dragones* ha realizado estancias de producción artística en las Islas de Saint-Pierre et Miquelon y Puerto Rico apoyado por el Centro Interdisciplinario de Estudios del Litoral y el Programa Sea Grant, ambas de la Universidad de Puerto Rico, y el Gobierno Vasco.

